

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Plana (BBIBALP), martxoaren 8ko 9/2023 Foru Arauak behin betiko onetsita (33. ALHAOn argitaratuta, 2023ko martxoaren 20an)

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 11

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

ARAUDIA

AURKIBIDEA

I. titulua: Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko BBIBALPren xedea eta izaera.
2. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko BBIBALPren aplikazio eremua.
3. artikulua. Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarearen definizioa.
4. artikulua. Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen definizioa.

II. titulua: Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarean aplikatzeko berariazko araudia.

5. artikulua. Bizikleta bideen definizio orokorra (4/2010 FA 2. artikulua).
6. artikulua. Bizikleta bideen tipologia (4/2010 FA 2. artikulua).
7. artikulua. Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarea.
8. artikulua. Babes eremuak (4/2010 FA 4-7. artikulua).
9. artikulua. Arabako Foru Bizikleta Bideen Katalogoa (4/2010 FA 9. artikulua).
10. artikulua. Foru Bizikleta Bideen Titulartasuna (4/2010 FA 10. artikulua).
11. artikulua. Foru Bizikleta Bideen Ezaugarri orokorrak (4/2010 FA 12. artikulua).
12. artikulua. Foru Bizikleta Bideen Ezaugarri teknikoak (4/2010 FA 13-18. artikulua).

III. titulua: Arabako LHko Ibilbide Berdeen Sarean aplikatzeko berariazko araudia.

13. artikulua. Ibilbide berdeen definizio orokorra (1/2012 FA 2. artikulua).
14. artikulua. Ibilbide berdeen tipologia (1/2012 FA 2. artikulua).
15. artikulua. Arabako ibilbide berdeak.
16. artikulua. Ibilbide berdeen Titulartasuna (1/2012 FA 4-6. artikulua).

17. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoa (1/2012 FA 10-12 artikulua eta 42/2013 FA).

18. artikulua. Ibilbide berdeen Ezaugarri orokorrak (1/2012 FA 13. artikulua).

19. artikulua. Ibilbide berdeen Ezaugarri teknikoak (1/2012 FA 14 -16. artikulua).

20. artikulua. Babes eremuak (26/2012 FA 1-29. artikulua).

IV. titulua: BBIBALPn aplikatzeko araudia.

21. artikulua. BBIBALPren agiriak.

22. artikulua. Zehaztapenen maila eta lotura.

23. artikulua. BBIBALPren eraginak.

24. artikulua. BBIBALPren garapena.

25. artikulua. Betearaztea eta indarrean sartzea.

26. artikulua. Administrazio arteko koordinazio esparrua. Lankidetzaren hitzarmena ibilbide berde katalogatuen kudeaketan.

27. artikulua. Hirigintza plangintzako tresnen eraginak.

28. artikulua. Planak eta bestelako hirigintza dokumentuak egitea.

29. artikulua. Ingurumena zuzentzeko eta babesteko neurriak, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa aplikatuz.

30. artikulua. Ingurumena Zaintzeko Plana, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa aplikatuz.

V. titulua: BBIBALPren indarraldia, azterketa, aldaketa eta eguneratzea.

31. artikulua. Indarraldia.

32. artikulua. Azterketa.

33. artikulua. Aldaketa.

34. artikulua. Eguneratzea.

1. ERANSKINA: Lankidetzaren Hitzarmenaren eredia Ibilbide Berdeen kudeaketan.

2. ERANSKINA: Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG): Paisaiaren arloko gidalerroak.

ARAUDIA**I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko BBIBALPren xedea eta izaera**

1. BBIBALPren xede orokorra da Arabako Ibilbide Berdeen Sareko eta Bizikleta Bideen Foru Sarearen plangintza orokorra egitea, bultzatzea eta sustatzea, eta bere araudiaren helburua da bi sareen helburu nagusiak, ezaugarri orokorrak eta indarrean dagoen bitartean garatzeko jarduera programa ezartzea da, ebaluazio ekonomikoa eta plana txertatzean, lehentasunen ezarpena barne hartuz.

2. Lurralde antolamendurako tresna da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31eko 4/1990 Legean ezarritakoaren arabera. Haren helburua da bizikleta bideen eta ibilbide berdeen arloko sektore jarduerak modu egokian txertatzea Arabako Lurralde Historikoa. Sektore esparru horretan egoten diren esku hartze publikoen koordinazioa bermatu beharko du, ingurumenaren, errepideen, lurraldearen eta hirigintzaren arloetan egindakoetan bereziki.

3. Jadanik onetsita dauden bi Foru Arauetan jasotzen da BBIBALP. 4/2010 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideei buruzkoa, eta 1/2021 Foru Araua, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoa.

4. BBIBALP, jatorriz, bi ibilbideak arautzen dituzten bi Foru Arauetan jasotzen bada ere, aipatutako Arau horietan ezartzen da AFak Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Planeko proiektu bat egingo duela eta Batzar Nagusiek onartu beharko dutela. Plan horretan, bai bizikleta bideak, bai ibilbide berdeak barne hartuko dira. (4/2010 FA lehen xedapen gehigarria, eta 1/2012 FA hirugarren xedapen gehigarria).

5. BBIBALPk bere araudia garatzen du, hirigintzaren eta lurraldearen antolamenduaren jarduketara esparruaren eta eskumenaren barruan. Bestalde, indarrean dauden bi foru arauetatik eratortzen dena da gidalero nagusia, eta ez du ezeztatzen. 4/2010 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideei buruzkoa, eta 1/2021 Foru Araua, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoa.

6. Azkenik, BBIBALPk, aipatutako bi Foru Arauetan ezarritakoari jarraituko dio: 6/1995 Foru Araua, otsailaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, artatu eta zaintzekoa, eta 11/2007 Foru Araua, martxoaren 26koa, mendiei buruzkoa.

2. artikulua. Arabako LHko BBIBALPren aplikazio eremua

BBIBALPren aplikazio eremua Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarea eta Arabako Ibilbide Berdeen Sarea da.

3. artikulua. Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarearen definizioa

Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarea osatuko dute izendatzen diren eta Arabako Foru bizikleta bideen katalogoan halakotzat barne hartzen diren foru titulartasuneko bizikleta bideen multzoa. Saretik kanpo geratzen dira, berariaz, 1/2012 Foru Arauak araututako ibilbide berdeak eta landa bideak.

4. artikulua. Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen definizioa

Arabako Ibilbide Berdeen Sarea osatuko dute Arabako Lurralde Historikoa funtzionalki egituratzen duten, eta, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeen sareko katalogoan halakotzat hartu diren ibilbide berdeen multzoa. Saretik kanpo geratzen dira, berariaz, 4/2010 Foru Arauak araututako bizikleta bideak.

II. TITULUA: ARABAKO BIZIKLETA BIDEEN FORU SAREAN APLIKATZEKO BERARIAZKO ARAUDIA

5. artikulua. Bizikleta bideen definizio orokorra (4/2010 FA 2. artikulua)

Bizikleta bideak jabari publikoko azpiegiturak dira, bizikletak ibiltzeko proiektatu eta eraikiak edo berariaz horretarako egokituak; beharrezko seinale horizontalak eta bertikalak edukiko dituzte, eta beraien zabalera eta zirkulazio araubidea bizikletak segurtasunarekin ibiltzeko modukoak izan behar dira..

6. artikulua. Bizikleta bideen tipologia (4/2010 FA 2. artikulua)

Bizikleta azpiegitura zer motatakoa den ezartzeko, alde batetik, plataforma nolakoa den kontuan hartuko da, hots, motorduna ala oinezkoentzat, eta bestetik, haien arteko bereizte maila. Horrela, sailkapen hau ezarri da:

1. Motordunen zirkulaziotik bereizitako bideak: fisikoki motordunen zirkulaziotik bereizita daudenak.

a) Bizikleta-pista: noranzko bakarreko edo biko bizikleta bidea, motordunen eta oinezkoen zirkulaziotik bereizita, baina ibilbide eta plataforma independentearekin.

b) Bizikleta-espaloia: noranzko bakarreko edo biko bizikleta bidea, espaloia ganean dagoena. Oinezkoen bideekiko bereizteko eta babesteko zenbait maila izan ditzake.

c) Bizikleta-errei babestua: errepidearen plataformaren zati bat hartzen duen bizikleta bidea. Fisikoki harengandik, motordunen zirkulaziotik eta espaloitik bereizita dago, alboko elementuen bidez, hala nola, oztopo-zutoin, zintarri edo bestelako bereizte edo babes elementuak. Noranzko bakarrekoa edo bi noranzkokoak izan daiteke.

2. Bide integratuak: bizikleten eta ibilbide motordunen zirkulazioak partekatzen duten bidea, edo bereizte maila oso txikiarekin, moduak bereizi gabe.

a) Bizikleta-erreia: galtzadari atxikita dagoen noranzko bakarreko bizikleta bidea, fisikoki ez dago bereizita motordunen zirkulaziotik, eta zirkulazioaren noranzko bera du.

b) Bizikleta-bazterbidea: errepideko bazterbidea hartzen duen bizikleta-bidea. Zirkulazio motordunaren noranzko berean igarotzen da, ez dago fisikoki banatuta baina seinaleen eta bide-marken, kolore edo testura aldaketan, sestra-aldaketa arinen edo bestelako metodoen bidez bereizita dago.

c) Seinaleztatutako bidea, partekatua edo mistoa: bizikleten eta motordunen zirkulazioa aldi berean egoten errazteko behar bezala tratatutako hiri barruko bidea edo hiriartekoa. Bere diseinuari, motordunen dentsitate txikiari edo zirkulazio motelari esker, zirkulazio eroso eta segurua dago bizikletan, aurreko bereizte mailarik gabe, eta aldi berean egonda.

7. artikulua. Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarea

Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarea Arabako Foru bizikleta bideen katalogoan halakotzat izendatu eta barne hartzen diren bizikleta bideen multzoak osatuta egongo da.

Bizikleta Bideen Foru Sarean barne hartzen diren bizikleta bide guztiek foru titulartasuna izan beharko dute.

BBIBALPk 11 ibilbide jasotzen ditu bizikleta bide gisa (BB), eta horietatik, bat, bazegoen, eta gainerakoek, planifikatuta dauden bizikleta bideen sarea osatzen dute. Hona hemen ibilbide horiek:

Sortuta dauden bizikleta bideak:

VC1 – Durana – Arroiabe.

Planifikatuta dauden bizikleta bideak:

- VC2 – Gasteiz – ParkeTecnologikoa.
- VC3 – Urbina – Legutio.
- VC4 – Gasteiz – Etxabarri Dibiña.
- VC5 – Gasteiz – Langraiz Oka.
- VC6 – Dulantzi – Burgelu.
- VC7 – Amurrio – Murgako industrialdea.
- VC8 – Ribabellosa – Miranda de Ebro.
- VC9 – Bastida – Haro.
- VC10 – Guardia – Eltziego.
- VC11 – Oion – Logroño.

Foru Sarearen barruan Arabako Lurralde Historikotik igarotzen den bizikleta bidearen ibilbidearen zatia, eta lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den bizikleta bidearen ibilbidearen zatia bakarrik barne hartuko dira.

ALPk ibilbide bat proposatzen du lurzoru urbanizagarritik igarotzen den bizikleta bide tarteetan. Ez du lotutarik ezartzen, baizik eta gomendioa. Halakoetan udalak du eskumena.

Halaber, gomendio gisa ere bai, ibilbideak proposatzen ditu Arabako Lurralde Historikotik kanpo, eta dagokion eskumena duten administrazioekin koordinatuko dira.

Bizikleta bide bat eta jadanik zegoen landa bide bat ibilbide berean badaude, Arabako Foru Aldundiak titulartasuna aldatzeko erabakia har dezake. Horrela, aurretik zuen erabilera berrezarri dela bermatu beharko du. Salbuespen gisa, titulartasuna aldatzeko erabakia hartu aurretik, bi zirkulazioek aldi berean egoteko baimena izango du, bai bizikleten zirkulazioak, bai nekazaritza zirkulazioak. Horretarako, "seinaleztatua, partekatua edo mistoa" izango da bidea, eta aurretik zegoen nekazaritza zirkulazioa mantenduko da; baita finketarako sarbideak ere, zeuden moduan, edo hala badagokie, berrantolatuta.

AP-68 errepidea zeharkatzen duten edo harekiko paralelo igarotzen diren bizikleta bideetan errepideak mantentzeko edo kontserbatzeko ibilgailuak ibili ahalko dira.

8. artikulua. Babes eremuak (4/2010 FA 4-7. artikulua)

Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarearen babes eremuak martxoaren 8ko 4/2010 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei eta babes eremuen erabilerari buruzkoaren, 4-7 artikuluetan, eta aipatutako Foru Arauaren 37-39 artikuluetan ezartzen dira.

BBIBALPk metrikoki eta grafikoki jasotzen du artikuluko horietan ezarritakoa:

- Jabari publikoko eremua: bizikleta bidea bera, gehi mugan dagoen lursailaren bi zati, bidearen albo bakoitzean 1 metrokoa egonda, zabalgunearen kanpo ertzetik neurtzen hasita.
- Zortasun-eremua: Bi lursail zati, 2,5 metrokoak, jabari publikoko eremuaren bi aldeetan.
- Afekzio-eremua: Bi lursail zati, 2 metrokoak, zortasun eremuaren bi aldeetan.

9. artikulua. Arabako Foru Bizikleta Bideen Katalogoa (4/2010 FA 9. artikulua)

BBIBALPn zehaztutako bizikleta bideak Bizikleta Bideen Foru Sarean sartuko dira, Arabako Foru Bizikleta Bideen Katalogoan txertatu eta gero.

Foru Aldundiak Arabako Foru Bizikleta Bideen Katalogoa onartuko du. Hor, foru bizikleta bide guztien zerrenda eta sailkapen zehatza agertuko da, baita bakoitzaren izena eta izendapen ofiziala ere. (4/2010 FAren 9. artikulua).

Horren aurretik, Arabako Foru Bizikleta Bideen Katalogoa izeneko Administrazio Erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua onartuko da. Hor, BBIBALPn zehaztutako bizikleta bide bat sartzeko prozedura ezarriko da.

Foru Dekretu bidez, bizikleta bide bakoitzaren izena ezarri eta Katalogoan sartuko da. Behin betiko izena ere ezarriko da.

Artikulu hori, ALPN ezarritako bizikleta bide guztietan aplikatuko da, Arabako Foru Bizikleta Bideen Katalogoa oraindik ez da osatu.

10. artikulua. Foru Bizikleta Bideen Titulartasuna (4/2010 FA 10. artikulua)

Arabako Foru Bizikleta Bidea osatzen duten bizikleta bideen tarteen titularrak Foru Aldundia izango da.

Bizikleta bide bat eta jadanik zegoen landa bide bat ibilbide berean badaude, Arabako Foru Aldundiak titulartasuna aldatzeko erabakia har dezake. Horrela, aurretik zuen erabilera berrezarri dela bermatu beharko du. Salbuespen gisa, titulartasuna aldatzeko erabakia hartu aurretik, bi zirkulazioek aldi berean egoteko baimena izango du, bai bizikleten zirkulazioak, bai nekazaritza zirkulazioak. Horretarako, "seinaleztatua, partekatua edo mistoa" izango da bidea, eta aurretik zegoen nekazaritza zirkulazioa mantenduko da; baita finketarako sarbideak ere, zeuden moduan, edo hala badagokie, berrantolatuta.

Halakoetan, martxoaren 8ko 4/2010 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideena, aplikatuko da, babes eremuen definizioari dagokionez.

Sortuta dauden bizikleta bideak transferitzeko prozedura egiteko, bizikleta bideei buruzko 4/2010 Foru Arauaren 10. artikuluari jarraituko zaio.

11. artikulua. Foru Bizikleta Bideen Ezaugarri orokorrak (4/2010 FA 12. artikulua)

Foru Bizikleta Bideek, oro har, 4/2010 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritako segurtasun, jarraitutasun, koherentzia, diseinu, ingurumen, irisgarritasun eta bizikidetzatza baldintzei egokitu beharko dute.

12. artikulua. Foru Bizikleta Bideen Ezaugarri teknikoak (4/2010 FA 13-18. Artikulua)

Foru Bizikleta Bideek, ezaugarri teknikoak dagokienez, 4/2010 Foru Arauaren 13-18 artikuluetan eta artikulu honetan ezarritako baldintzei jarraitu beharko diete.

a) Dimentsioei dagokienez.

Noranzko biko bizikleta bideen gutxieneko sekzioa hau izango da:

- Bizikleta-pista: 2,5 metro.
- Bizikleta-espaloia: 2,2 metro.
- Bizikleta-errei babestua: 2,5 metro.
- Seinaleztaturako bidea, partekatua edo mistoa: sortuta dagoena.

Noranzko bakarreko bizikleta bideen gutxieneko sekzioa hau izango da:

- Bizikleta-pista: 1,2 metro.
- Bizikleta-espaloia: 1 metro.
- Bizikleta-errei babestua: 1,5 metro.
- Bizikleta-erreia: 1,2 metro.
- Bizikleta-bazterbidea: 1 metro.

Unean unean sekzio txikiagoak zehaztu ahalko dira, zaitasun topografikoak dituzten tartetean, edo aurretik eraikinak daudenetan, betiere 1 km baino gutxiagoko tartetean.

b) Zoruari eta zoladurari dagokienez:

4/2010 Foru Arauaren 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio. Horrela, bizikleta-pistetan, bizikleta-espaloietan edo bizikleta-errei babestuetan mikro aglomeratu gorriko edo horren antzeko akaberak gomendatuko ditu.

Bizikleta-erreitan eta bizikleta-bazterbideetan, zehazten diren bideko zoru eta zoladura bera.

Seinaleztatutako bide partekatu edo mistoetan, asfaltatutako bideak sortu beharko dira.

c) Seinaleei dagokienez:

4/2010 Foru Arauaren 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, gutxienez, seinele bertikal edota horizontal hauekin:

- Bizikleta bidearen eta errepidearen arteko bidegurutzeta.
- Bizikleta bidearen eta landa bidearen edota baso pistaren arteko bidegurutzeta.
- Bizikleta zirkulazioa eta oinezkoen zirkulazioa aldi berean egotea.
- Bizikleta zirkulazioa eta nekazaritza zirkulazioa aldi berean egotea. Kasu honetan, abiadura-muga orduko 30 kilometrokoa da (km/h).
- Bizikleta zirkulazioa eta motordunen zirkulazioa aldi berean egotea. Kasu honetan, abiadura-muga 30 km/h da.
- Oinezkoen zirkulazioa debekatuta dago.
- Motordunen zirkulazioa debekatuta dago.

d) Babes eremuei dagokienez:

BBIBALP honen 8. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

e) Argiei, bidegurutzei, aparkaleku zerbitzuari eta zirkulazioari dagokienez.

4/2010 Foru Arauko 15-18. Artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio.

III. TITULUA: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO IBILBIDE BERDEEN SAREAN APLIKATZEKO BERARIAZKO ARAUDIA

13. artikulua. Ibilbide berdeen definizio orokorra (1/2012 FA 2. artikulua)

Ibilbide berdeak dira komunikazio azpiegiturak –ahal dela zerbitzutik kanpo erabat edo neurri batean dauden azpiegitura lineal zaharrak–, garai bateko abelbideak nahiz bide naturalak, erro-mesenak eta ibilbide historiko handiak edota interes ekologiko eta paisaia interes adierazgarrikoak direnak erabiltzen dituztenak, motorizatu gabeko joan-etorriak egiteko (oinetz, bizikletaz, zaldiz, patinekin, beste batzuen bitartez). Bide horiek jendeak erabiltzeko proiektatu, egokitu edo eraiki dira, naturan aisia irisgarria, aisia ekologiko eta hezitzailea, soziokulturala eta kirolekoa sustatze aldera. Halaber, zeharkatzen duten lurraldearen natura ondarea eta ondare historiko eta kulturala lehengoratu, dinamizatu eta balioztatu nahi da.

14. artikulua. Ibilbide berdeen tipologia (1/2012 FA 2. artikulua)

Ezaugarri teknikoei dagokienez, ibilbide berdeen tipologia hauek bereizten dira:

a. Bide berdea: Ibilgailu motordunik gabeko joan-etorrietarako utzitako bidea, dituen ezaugarriengatik eta morfologiarengatik behar besteko zabalera, malda eta gainazaleko kalitate badiu edozein gaitasun fisiko duten erabiltzaileek bizikidetzan eta segurtasunean erabiltzeko.

b. Ibilbide berdea: Ibilgailu motordunik gabeko joan-etorrietarako utzitako bidea. Hauetan, erabilera horiek bat etorri daitezke landa jardueretara elkartutako joan-etorri motorizatu batzuekin (funtsean nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jarduerak), edo, bestela, izan daiteke zeharkatzen duen ingurunearen ezaugarriak direla-eta ez betetzea bide berde bat izateko baldintzak, malda arina edukitzea zailtzen duen topografia bati egokiturik egoteagatik.

c. Zidor berdea: ingurune naturaletik edo landa ingurunetik igarotzen den bidexka, lur naturalaren malda bera eta gainazaleko kalitate bera dituen, zabalera, normalean, bide edo ibilbide berdeetarako normalizaturik dagoena baino txikiagoa izaten duena, eta mantentzeko gutxieneko esku hartzea behar duena.

Ibilbide horiek, jadanik dauden azpiegituretan oinarritu daitezke, edo sortu berri diren tarteez osatuta egon daitezke, haien ibilbideari jarraitutasuna emateko edo ibilbideen eta beste leku interesgarri batzuen (hala nola landaguneak, ekipamenduak, zerbitzuak, natura, ondare edo kultura intereseko zedarri edo eremuak) artean lotura bermatzeko lehentasunezko helburuarekin.

15. artikulua. Arabako ibilbide berdeak

ALP honen ondorioetarako, Arabako ibilbide berdeak, honako hauek osatutakoak dira:

- Lehendik dauden ibilbide berde katalogatuak: Jadanik halakotzat hartu diren eta Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan barne hartuta daudenak dira.

- Lehendik egonik katalogazio fasean dauden ibilbide berdeak: Jadanik egokituta eta zerbitzuan daudenak dira. Dagoeneko Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartzeko izapidea hasi dute.

- Ibilbide berde planifikatuak: BBIBALP honetan proposatzen diren ibilbideak dituztenak dira. Gainerakoen prozesu berari jarraitu behar diote Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartzeko.

ALPk 50 ibilbide berde (IV) jasotzen ditu, eta horietatik, 10, katalogatuta daude jada; 16, sortuta daude eta katalogazio fasean daude, eta gainerako 24k ibilbide berde planifikatuen sarea osatzen dute. Hona hemen Ibilbidea horiek:

Lehendik dauden ibilbide berde katalogatuak:

IV1 – Uribarri Ganboako urtegiko ibilbide berdea.

1. azpitartea: Aldaietako saihesbidea (planifikatua).

2. azpitartea: Urizar saihesbidea (planifikatua).

3. azpitartea: Amarita – Uribarri-Ganboako urtegia (katalogazio fasean).

4. azpitartea: Uribarri Ganboako urtegia – Posta Bidea (planifikatua).

IV2 – Nerbioiko Parke Linealeko bide berdea.

1. azpitartea: Laudio-Arrankudiaga (planifikatua).

2. azpitartea: Salbio-El Refor (katalogazio fasean).

3. azpitartea: El Refor-Saratxo industrialdea (planifikatua).

4. azpitartea: Saratxoko industrialdea-Saratxoko industrialderako sarbidea (planifikatua).

5. azpitartea: Saratxoko industrialdea-Mesonos auzoa (planifikatua).

6. azpitartea: Saratxo saihesbidea (planifikatua).

7. azpitartea: Saratxo-Urduña (planifikatua).

8. azpitartea: Urduña-Delika (planifikatua).

9. azpitartea: Delikako bidezidor berdea (katalogazio fasean).

IV3 – Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdea.

1. azpitartea: Laminoriako tunela (planifikatua).

2. azpitartea: Saratxo saihesbidea (planifikatua).

3. azpitartea: Saihesbidea Urbinatik igarotzean (planifikatua).

IV4 – GR120 erromes ibilbidea, Inaziotar Bidea.

1. azpitartea: Guardiako hirigune historikoaren saihesbidea (planifikatua).
2. azpitartea: Bilarko saihesbidea (katalogazio fasean).
3. azpitartea: Arabarren Bidea (katalogazio fasean).

IV5 – Posta Errege Bidea.

1. azpitartea: Gasteiz – Aniako San Martin (planifikatua).

IV6 – Gazteluen ibilbidea.

IV7 – Betoñuko haitzaren kolada. Harriaren Bidea.

Tartea: Axarte handitza (planifikatua) eta Monasteriogurengo adarra.

IV8 – Mendixurreko ornitologia parkeko zidor sarea.

IV9 – Arabako Mendialdeko itzulia.

1. azpitartea: Santa Teodosiara igotzeko saihesbidea (planifikatua).

IV10 – Guardiako Lagunarreko ibilbide berdea.

Lehendik egonik katalogazio fasean dauden ibilbide berdeak:

IV11 – Gasteizko Eratzun Berdearen bira.

1. azpitartea: Zabalgana handitza (planifikatua).
2. azpitartea: Hegoaldea handitza (planifikatua).
3. azpitartea: Salburua handitza (planifikatua).

IV12 – GR1 – Bidezidor Historikoa.

IV13 – GR25 – Arabako Lautadako mendi magaleko itzulia.

Zeanuriko lotune adarra (planifikatua).

IV14 – GR- GR38 – Ardoaren eta Arrainaren Ibilbidea.

IV15 – GR99 – Ebroko Bide Naturala.

Salinillas-Zambrana adarra. N-124 errepidetik zirkulatzearen alternatiba (planifikatua).

IV16 – GR282 – Artzaintza bidea.

IV17 – GR284 – Sopeñako Errege Bidea.

IV18 – Erromes Bidea. Done Jakue bidea.

Salinillas-Zambrana adarra. N-124 errepidetik zirkulatzearen alternatiba (planifikatua).

IV19 – Opakuako kolada.

IV20 – Berantevillako abelbidea.

IV21 – Gesaltza Añanako, Caicedo Yuso eta Arreoko lakuko eta Uñako haitzeko ibilbide berdeak.

Done Joan Akrekoaren adarra (planifikatua).

IV22 – GR123 – Laudio-Yermoko Ermita- Ganekogorta.

IV23 – Zadorrako Ibilbide Berdea.

1. azpitartea: Gasteizko Eratzun Berdea – Krispiñako araztegia (katalogazio fasean).
2. azpitartea: Billoda – Langraiz Oka. (katalogazio fasean).

3. azpitartea: Krispiñako araztegia –Tresponde eta Billoda eta Santa Katalina adarra (planifikatua).

4. azpitartea: Langraiz –Trebiñu (planifikatua).

IV24 – Arabako Errioxako Ibilbide Berde Kulturala.

IV25 – Ehunka urteko haritzen eta Zadorrako iturrien ibilbide berdea.

IV26 – Inglares Ibaiko Uraren Ibilbidea.

Ibilbide berde planifikatuak:

IV27 – Izoriako Ibai Parkea.

IV28 – Etxabarri Dibiña – Gorbeia.

IV29 – Gasteiz – Oto – Murgia.

IV30 – Gasteiz – Zaldiaran.

IV31 – Gasteiz – Arrieta.

IV32 – Gasteiz – Okina.

IV33 – Legarda – Amarita.

IV34 – Gasteiz – Urduña (Badaiatik).

IV35 – Dulantzi – Done Jakue Bidea.

IV36 – Done Jakue Bideko Jatorrizko Ibilbidea. Nafarroarekin lotura.

IV37 – Ametzaga-Egilazko Trikuharriaren Ibilbide Berdea eta Done Jakue Bidearekin lotzeko adarrak eta GR-25ekin “Arabako Lautadako mendi magaleko itzulia” Zalduondon eta Agurainen eta GR-120ekin “Inaziotar Bidea” Araian.

IV38 – Dueñasko Pinudiko Ibilbide Berdea (Labraza).

IV39 – Bastida – Gatzaga Buradon.

IV40 – Samaniego – Eskuernaga– Mañueta.

IV41 – Fontecha – Espejo.

IV42 – Oleta – Otxandio.

IV43 – Izarra – Bitoriano.

IV44 – Izarrako zidor berdea Goiuriko ur jauziraino.

IV45 – Urrunaga – Sabalain.

IV46 – Betolatza – Buruaga.

IV47 – Ibarra-Aramaio – Arrasate.

IV48 – Asturiasko Bidea.

IV49 – Baia Ibaiaren Ibilbidea.

IV50 – Gasteiz – Valderejo.

1. azpitartea: Gasteiz –Tresponde (honekin bat egiten du: IV23 – Zadorraren Ibilbide Berdea) (lehendik egonik katalogazio fasean dago).

2. azpitartea: Tresponde – Langraiz (honekin bat egiten du: IV13 – GR25 – Arabako Lautadako mendi magaleko itzulia) (lehendik egonik katalogazio fasean dago).

3. azpitartea: Langraiz – Subilla Morillas (honekin bat egiten du: V16 – GR282 – Artzaintza Naturabidea) lehendik egonik katalogazio fasean dago).

4. azpitartea: Subilla Morillas – Pobes. (planifikatua).

5. azpitartea: Pobes – Gesaltza-Añana (planifikatua) (honekin bat egiten du: IV49 – Baia Ibaiaren Ibilbidea).

6. azpitartea: Gesaltza-Añana – Espejo (honekin bat egiten du: IV12 – GR1 – Bidezidor Historikoa) (lehendik egonik katalogazio fasean dago).

7. azpitartea: Espejo – Uribarri Gaubea (planifikatua).

8. azpitartea: Uribarri Gaubea – San Millán de San Zadornil (planifikatua) Arabako tartea eta Burgosko tartea.

9. azpitartea: San Millán de San Zadornil – San Zadornil (honekin bat dator: IV16 – GR282 – Artzaintza Naturabidea) (lehendik egonik katalogazio fasean dago). Burgos.

10. azpitartea: San Zadornil – Lalastra (planifikatua). Burgosko tartea eta Arabako tartea.

BBIBALPk, gomendio gisa, ibilbideak proposatzen ditu Arabako LHtik kanpo, ibilbideei jarraitutasuna eta koherentzia emateko. Dagokion eskumena duten administrazioekin koordinatuko dira.

Landa-bideekin, abere edo baso bideekin bat datozen Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen tartetan, landa, abere edo baso bideen berariazko araudia (1/2012 FAren 3. artikulua) aplikatuko da.

AP-68 errepidea zeharkatzen duten edo harekiko paralelo igarotzen diren ibilbide berdeetan errepideak mantentzeko edo kontserbatzeko ibilgailuak ibili ahalko dira.

16. artikulua. Ibilbide berdeen Titulartasuna (1/2012 FA 4-6. artikulua)

Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen multzoa osatzen duten ibilbide berdeen titulartasuna publikoa edo pribatua izan daiteke.

Titulartasun publikoa dutenak Lurralde Historikoenak, udalenak edo kontzejuenak izan daitezke.

Titulartasuna tokiko beste erakunde, kontzeju edo udalen esku dagoen azpiegiturak, ibilbide berde gisa planifikatzen badira, ibilbide berdeen erabilera har dezakete, beren elementu funtzionalekin batera, alderdiek dagokion hitzarmenaren bidez hala erabakitzen badute.

Aldez aurretik hitzarmen bidez hala erabakita, Arabako Ibilbide Berdeen Sarean sartuta dauden ibilbideak egon daitezke, titulartasuna pribatua izanda, baina lurraldeko administrazioen batek urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoan, ezarritako eskumenak bere gain hartuta.

17. artikulua. Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoa (1/2012 FAren 10-12. artikulua eta 43/2013 FD)

BBIBALPn zehaztutako ibilbide berdeak Arabako Ibilbide Berdeen Sarean sartuko dira, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartu eta gero.

Arabako Foru Aldundiak, "Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoa" Administrazio Erregistroaren eraketa, antolaketa eta funtzionamendua onartu du 42/2013 Foru Dekretuaren bidez.

Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoa, Katalogoa aurrerantzean, administrazio erregistroa da, elektronikoa edota dokumentala, eta Diputatuen Kontseiluaren Erabakiaren bidez, halakotzat hartu diren Ibilbide Berde guztiak, zein aurrerantzean Ibilbide Berde deklaratu direnak, barne hartzen dira -Arabako Lurralde Historikoko bide berdeak, ibilbide berdeak edo zidor berdeak-.

Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoa Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailari, edo etorkizunean horren egitekoak bere gain hartzen dituen sailari, atxikiko zaio.

1. Ibilbide Berde deklarazioa eta katalogoan sartzea:

Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen adierazpena erakunde titularrak eskatuta edo ofizioz egingo da, ibilbide berdeei buruzko eskumenak dituen sailak proposatuta, erakunde titularraren eta landa bide, abelbide eta onura publikoko Saila aginpidetza duten sailen adostasunarekin, eragiten dienean.

Adierazpena Diputatuen Kontseiluaren erabakiz egingo da, eraginpeko toki erakundeei eta gaia dela eta interesdun diren foru sailei entzunaldia eman ondoren.

Ibilbide Berde bat Katalogoan sartzeak urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoan, ezarritako araubide bera aplikatzea ekarriko du.

Hauexek jaso beharko ditu gutxienez adierazpenak:

- Ibilbide horren sailkapena: Bide Berdea, Ibilbide Berdea edo Zidor Berdea.
- Azpiegituraren izena.
- Maila: Lehentasuneko interesa, eskualde edo tokiko interesa.

• Trazaduraren azalpena eta ezaugarri orokorrak, zehaztuta ibilbidearen hasiera eta amaiera mugatzen duten puntuak, zeharkatzen dituen udalerrak eta kontzejuak, guztira hartzen duen luzera kilometrotan, eta bere zerbitzuari beti lotutako eremuak eta instalazioak.

- Erabilera araubidea eta aipatutako ondorioetarako interesgarri irizitako beste edozein datu.
- Deklarazioarekin lotutako dokumentazioari Erregistro fitxa esaten zaio.

Gaur egun, deklarazioa eta 10 ibilbide Katalogoan sartzea onartu dira. Bestalde, beste ibilbide bat katalogazio prozesuan dago:

- Uribarri Ganboako urtegiko ibilbide berdea. 721/2014 erabakia.
- Nerbioiko Parke Linealeko bide berdea (zati bat). 722/2014 erabakia.
- Vasco-Navarro trenbide zaharren bide berdea 753/2014 erabakia.
- GR120 erromes ibilbidea, Inaziotar Bidea. 316/2015 erabakia.
- Posta Errege Bidea. 317/2015 erabakia.
- Gazteluen ibilbidea. 318/2015 erabakia.
- Betoñuko haitzaren kolada (Harriaren Bidea). 319/2015 erabakia.
- Mendixurreko ornitologia parkeko zidor sarea. 320/2015 erabakia.
- Arabako Mendialdeko itzulia. 321/2015 erabakia.
- Guardiako aintziraguneko ibilbide berdea. 322/2015 erabakia.
- Gasteizko Eratzun Berdearen bira. 139/2015 Foru Agindua, deklarazioaren izapidea hastekoa.

2. Katalogoaren aldaketa.

Honako kasu hauetako batean gaurkotu edo aldatuko da Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoa:

- Ibilbide Berdeen Sarearen azpiegituren titulartasun aldaketa.
- Sarearen azpiegitura berriak eraikitzen, lehengoratzeko edo berriztatzea, eta adierazten badira edo jada existitzen direnak aldatzen badira.

- Ibilbide horiek eragin ditzaketen beste azpiegitura batzuk sortzen, aldatzen edo kentzen badira.

Diputatuen Kontseiluaren erabakiz onartuko da Katalogoaren aldaketa. Halaber, eta egoki den kasuetan, Arabako Ibilbide Berdeen Sareko azpiegitura lanak egin eta jaso ondoren, Arabako Foru Aldundian Ibilbide Berdeetan aginpidetza duen sailak administrazio espedientea bideratuko du adierazpena egiteko, non sartuko diren egindako jardueri buruzko memoria eta haien harrera akta positiboa. Aldaketa espedientea, beharrezko diren legezko txostenak eta kasuan kasuko proposamena, foru erabakiaren testua barne, Diputatuen Kontseiluan aurkeztuko dira, onar daitezzen.

3. Argitaratzea:

Arabako Foru Aldundian Ibilbide Berdeetan aginpidetza duen sailak ALHAOn argitaratuko ditu Diputatuen Kontseiluaren erabakiz Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartzen diren Ibilbide Berdeen zerrenda eta ezaugarriak.

Argitaratze hori koordinatuta egongo da otsailaren 13ko 6/1995 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, artatu eta zaintzekoan, jasotako Landa Bideen Erregistroarekin dagokion gaurkotzearekin eta foru ondarearen arloan aginpidetza duen sailarekin.

4. Katalogoan sartzeko izapidetzen ari diren ibilbideen aldi baterako lege araubidea:

Harik eta ALHAOn argitaratzen diren arte Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartzen diren Ibilbide Berdeen zerrenda eta ezaugarriak, ibilbide bat Katalogoan sartzeko espedienteari hasiera ematen zaionetik aplikagarri izango zaie 1/2012 Foru Arauan jasotako lege araubidea foru arau hori indarrean jarri aurretik bazeuden Ibilbide Berdeei.

18. artikulua. Ibilbide berdeen Ezaugarri orokorrak (1/2012 FA 13. artikulua)

Ibilbide Berdeen Sareak, oro har, urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeenak, 13. artikuluan ezarritako segurtasun, jarraitutasuna, irisgarritasun, diseinu, ingurumen, paisaia, informazio eta sustapen ezaugarriak bete beharko ditu.

19. artikulua. Ibilbide berdeen Ezaugarri teknikoak (1/2012 FA 14-16. artikulua)

Ibilbide berdeek, ezaugarri teknikoak dagokienez, 1/2012 Foru Arauaren 14-16 artikuluetan eta artikulua honetan ezarritako baldintzei jarraitu beharko diete.

a) Dimentsioei dagokienez:

Ibilbide berdeen gutxienezko sekzioa:

- Bide Berdea: erabiltzaile guztiei bizikidetzan eta segurtasunez erabiltzea bermatzeko egokia.
- Ibilbide Berdea: sortuta dagoena, jadanik dagoen azpiegituran oinarritzen bada, edo 2 metro, sortu berri den tartea bada.
- Zidor Berdea: sortuta dagoena, jadanik dagoen azpiegituran oinarritzen bada, edo 1 metro, sortu berri den tartea bada.

Sekzio txikiagoak zehaztu ahalko dira, zailtasun topografikoak edo aurretik sortu diren azpiegiturak edo eraikinak dauden tarteetan.

b) Zoruari eta zoladurari dagokienez:

1/2012 Foru Arauaren 14. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, eta akaberetan homogeneotasuna gomendatuko da.

c) Seinaleei dagokienez:

1/2012 Foru Arauaren 16. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, gutxienez, seinale bertikal edota horizontal hauekin:

- Ibilbide berdearen eta errepidearen arteko bidegurutzeta.
- Ibilbide berdearen eta landa bidearen edota baso pistaren arteko bidegurutzeta.

- Nekazaritza zirkulazioarekin aldi berean egotea. Kasu honetan, abiadura-muga 20 km/h da.
- Motordunen zirkulazioarekin aldi berean egotea. Kasu honetan, abiadura-muga 30 km/h da.
- Motordunen zirkulazioa debekatuta dago.

Une oro errespetatuko da ibilbide berdearen erabilera eta landa bideak edo baso bideak bat egiten duten tarteetako berezko seinaleei buruzko araudia eta zeharkatzen duen ibilbide motaren seinaleztatze homologatu espezifikoa edo berezkoa (mendiko federazioa, bide historikoak eta erromes eta abar).

d) Babes eremuei dagokienez:

BBIBALP honen 20. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

20. artikulua. Babes eremuak (1/2012 FA 26-29. artikulua)

Ibilbide Berdeen Sarearen babes eremuak 1/2012 Foru Arauaren 26-29 artikuluetan zehazten dira, eta Babes Eremuen Erabilera, aipatutako Arauaren 30-35 artikuluetan.

BBIBALPk metrikoki eta grafikoki jasotzen du artikuluko horietan ezarritakoa:

- Jabari publikoko eremua: zabalgunearen kanpoko ertzeraino neurtutako ibilbide berdea, elementu funtzionalak barne hartuz.
- Zortasun-eremua: Bi lursail zati, 2 m-koak, jabari publikoko eremuaren bi aldeetan.
- Afekzio-eremua: Bi lursail zati zortasun eremuaren bi aldeetan, udalerriek beren Hiri Antolamendurako Plan Orokorretan zehaztuko dituztenak.

IV. TITULUA: BBIBALP-N APLIKATZEKO ARAUDIA

21. artikulua. BBIBALPren agiriak

Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Planak agiri hauek ditu:

- A agiria. Memoria.
 - B agiria. Araudia.
 - C agiria. Jardun programa.
 - D agiria. Dokumentazio grafikoa.
 - E agiria. Partaidetza publikoa.
 - F agiria. Ingurumen ebaluazioa.
1. eranskina: plangintza duen eragina.
 2. eranskina: arloko araudi osagarria.

BBIBALPren araudia osatzen duten agirien multzoa osatuta dago, hala ere, B. agiria da, hots, araudia, izaera arau-emailea berriaz duena, eta zuzeneko lotura du.

D agiriak, -dokumentazio grafikoa- delakoak, 22. artikuluekin eta ALP honen 24. eta 31. artikuluetan egindako gogoetekin zuzenean lotuta dagoen izaera arau-emailea ere bada.

Gainerako agiriak: A. memoria, C. jardun programa, E. partaidetza publikoa, F. ingurumen ebaluazioa, 1. eranskina: plangintza duen eragina eta 2. eranskina: arloko araudi osagarria, erreferentziatzen hartuko dira, beraz, aurreko atalean aipatutako agiriekin alderatuz, edukietan kontraesanik gertatzen bada, haiek izango dute lehentasuna.

22. artikulua. Zehaztapenen maila eta lotura

BBIBALPren araudiak, bi hauetan ezarritako zehaztapenak beteko ditu: 4/2010 Foru Araua, martxoaren 8koa, Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideei buruzkoa, eta 1/2021 Foru Araua, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoa, Araudi honen artikuluetan jasotzen den moduan. Beraz, edukietan kontraesanik egonez gero, indarreko Foru Arauak aplikatuko dira.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan, araututako hirigintza planei dagokienez, BBIBALP honakoetan loteslea izango da:

- Bizikleta Bideen Foru Sarean, bide horiek gauzatutakoan edo behin betiko onartutako proiektua izandakoan, hirigintza plangintzak hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruan kokatuta dauden tartekak edo udalaren eskumenekoak direnak izan ezik.

- Zerbitzuan dagoen sarea osatzen duten Ibilbide Berdeak, bai jadanik katalogatuta daudenak, bai katalogazio fasean daudenak (horrela, Arabako Ibilbide Berdeen Sarean daude), hirigintza plangintzak hiri lurzoru gisa sailkatzen duen lurzoruan kokatuta dauden tartekak izan ezik.

Bi sareetako gainerakoetan, BBIBALPren zehaztapenak gutxi gorabeherakoak dira.

23. artikulua. BBIBALPren eraginak

Arabako BBIBALP loteslea izango da, 21. eta 22. artikuluetan adierazitakoan oinarrituz, bai Lurralde Historikoko Herri Administrazioetarako, bai herritarrentzat.

Arabako Foru Aldundiak bizikleta bideetan eta ibilbide berdeetan egingo diren jarduketak guztiak BBIBALPk ezartzen dituen helburuei egokituko ditu.

Era berean, BBIBALPn ezarritako jarduketak eta han jasotzen ez diren baina Sarearen garapen eta koherentzia onerako komenigarriak diren beste ekimen batzuk egin beharko ditu, betiere ALPren erabilera sustatzeko eta bultzatzeko, eta haren helburuak betetzeko.

Horrez gain, koordinazio jarduketak egingo ditu eskumeneko administrazioekin aldame-neko lurraldeetan, non BBIBALPk ez baitu eskumenik, ibilbideen jarraitutasuna eta sarearen koherentzia eta funtzionaltasuna bermatzeko helburuarekin.

24. artikulua. BBIBALPren garapena

Arabako BBIBALPk Arabako Bizikleta Bideen Sarearen eta Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen garapena planifikatzen du.

Planifikatutako bidearen edo ibilbidearen eraikuntza bideratzen duten zabalgunean, ibilbidearen hobekuntzak, egokitzapenak eta aldaketak egin ahalko dira, planifikatutako sareari koherentzia ematen badiote.

D. agiria. Dokumentazio grafikoa izeneko agirian jasotzen den ibilbideak plangintzaren zehaztasuna hartzen du, bai ibilbide berdeen kasuan, bai planifikatutako bizikleta bideen kasuan. Horrela, eraikuntza proiektu tekniko zehatzaren bidez garatu eta zehaztu behar da gero, eta ez da behar hirigintza garatzeko inolako tarteko tresnarik.

Behin betiko ibilbidea eraikuntza proiektu teknikoan zehaztutakoa edota Katalogoan sartzeko deklarazioari atxikitako erregistro fitxan jasotakoa izango da.

Jadanik dauden ibilbide berdeek, bai katalogatutakoek, bai katalogazio fasean daudenek, behin betiko ibilbidea jasotzen dute.

25. artikulua. Betearaztea eta indarrean sartzea

Arabako BBIBALP berehala gauzatuko da behin betiko onarpena argitaratzen denean.

Tresna honen derrigortasunaren eraginkortasuna hautemateko, kasuak kasu jarduketak garatzeko eskumena duten Lurralde Historikoko administrazioak; Arabako Bizikleta Bideen Sarean eta Ibilbide Berdeen Sarean eragiten duten sektore eta lurralde jarduketak eta tresnak, zein lurzoru erabiltzeko eta eraikitzeko jarduerak egingo dituzten partikularrak lotzen dira.

26. artikulua. Administrazio arteko koordinazio esparrua. Lankidetzaren hitzarmena ibilbide berde katalogatuen kudeaketan

Ibilbide berdea izendatzeko eta Katalogoan sartzeko, administrazioen arteko ezinbesteko harremanaren eta koordinazioaren esparrua ezartzeko, kudeatzeko eta kontserbatzeko ezarri da lankidetzaren hitzarmena.

BBIBALPren Araudiaren 1. eranskin gisa, erreferentziako hitzarmen eredu bat barne hartu da. Hori aldatzeak ez du ekarriko Arabako BBIBALP aldatzeko izapiderik egitea.

Ibilbide berdeen kudeaketan eskumena duen sailaren eta azpiegituraren titularra den Tokiko Erakundearen arteko lankidetzaren jasotzen da hor.

Klausulen artean hauek ezartzen dira.

- Xedea.
- Ibilbide Berdea izendatzeko prozedura bultzatzea.
- Esku hartzen duten aldearen konpromisoak.
- Kontserbatzeko eta mantentzeko betebeharrak, ibilbidea landa bideekin edo tokiko erakundeak titularrak diren bestelako bideekin bat egitean.
- Landa bideak eta baso bideak gainjartzen diren tartetan utzitako erabilereen arteko bateragarritasuna.
- Jarraipen Batzordea.
- Hitzarmenaren izaera juridikoa.

Lankidetzaren Hitzarmena Ibilbide Berdea deklaratzeko eta Katalogoan sartzeko prozeduraren esparruan sinatuko da.

27. artikulua. Hirigintza plangintzako tresnen eraginak

Maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen antolamenduari buruzkoan, 22. artikuluan ezartzen den moduan, BBIBALPk, udalaren esparruan edo interesa hertsiki gaintzen duen eta lurralde esparruan zuzen txertatuta dagoen heinean, lurzorua-
ren araubideari buruzko legediak araututako hirigintza planak lotzen ditu bere zehaztapenekin.

Han jasotzen diren zehaztapenak udalaren hirigintza plangintzan sartuko dira idazten edo berrikusten denean. Hala ere, lotesleak direnak, 21. eta 22. artikuluetan ezartzen diren baldintzetan, Lurralde Historiko guztian aplikatuko dira BBIBALP indarrean sartzen denetik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak, 15. artikuluan, PLANGINTZAN DUEN ERAGINA izeneko ERANSKINEAN, ezartzen duen moduan, BBIBALP hau behin betiko onartzen denetik eta indarrean sartzen denetik aurrera, jadanik dauden hirigintza planak zer toki jakinetan aldatzen diren ezartzen da udalez udal. Hala ere, eragindako Udalek, zehaztapen horiek barneratzeko beharrezkoak diren prozedurak has ditzakete.

Proposatutako azpiegiturak eraginkortasunez eta homogeneotasunez gauzatzen direla bermatzeko, honela jasoko da udal plangintzan sartzeko prozesua:

- Bizikleta Bideen Foru Sarea, Arabako Foru Bizikleta Bideen Katalogoan gauzatutako eta barne hartutako bizikleta bideek osatutakoa, Bizikleta Bideen Sistema Orokor gisa integratuko da, eta bere muga jabari publikoko eremua izango da, 4/2010 Foru Arauaren 5. artikuluan zehazten den moduan.
- Arabako Ibilbide Berdeen Sarea, irizpide orokor gisa, eta zerbitzuan dagoen sareari dagokionez: ibilbide berde katalogatuak eta katalogazio fasean daudenak udal plangintzan sartzen dira, baldintzatzaile gainjarri gisa. Salbuespen gisa, udalerraren azterketa zehaztetik

ondorioztatzen bada Ibilbide berderen bat egituratzailea dela eta sistema orokor baten berezko gainerako baldintzak betetzen dituela, Ibilbide Berdeen Sistema Orokor gisa jaso ahalko da, eta eta bere muga, 1/2012 Foru Arauaren 27. Artikuluan zehaztutako jabari publikoko eremuarena izango da.

28. artikulua. Planak eta bestelako hirigintza dokumentuak egitea

Hirigintza plangintzak idatziko dituzten udalek, erakundeek eta partikularrek, edozein direla, eta hala badagokie, urbanizazio proiektuek eta plangintza, egikaritzea edo kudeaketako bestelako hirigintza tresnek, Arabako Bizikleta Bideen foru sarean edo Arabako Ibilbide Berdeen Sarean eragin dezaketenek, Foru Aldundiari jakinarazi beharko diote, eta aipatutako plan edo proiektuen esparruan kokatzen diren sareei buruzko informazio zehatza eskatu. Azken batean, helburua da egitekoak eta hirigintza ekintza koordinatzea foru plan eta proiektuen aurreikuspenekin, bizikleta bideen edo onartutako edo idazten ari diren ibilbide berdeen arloan.

Plan horien eta bestelako hirigintza planen erredaktoreek, egin nahi dituzten bizikleta bideen edo ibilbide berdeen arloan ezarri nahi dituzten irizpideak eta irtenbideak foru organoak txosten batean azter ditzala eska dezakete.

Nolanahi ere, egiten diren hirigintza planek eta tresnek Arabako BBIBALPren zehaztapenekin eta geroago egon daitezkeen aldaketekin bat etorri beharko dute; baita plana bera garatzen duten proiektuekin, eta Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Foru Arauen zehaztapenekin ere.

29. artikulua. Ingurumena zuzentzeko eta babesteko neurriak, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa aplikatuz

ALPk gehienbat natura ingurunearen eta ingurune sozioekonomikoaren gaineko eragin positiboak jasotzen ditu balorazio orokorrean. Hala ere, F AGIRIAREN 1. puntuan (10. atala) eta 3. puntuan, ia eraginik ez izateko zenbait neurri zuzentzaile eta babesle, eta ALPk garatzen dituen eraikuntza eta egokitzapen proiektuetan kontuan hartu beharreko zenbait baldintza ere jasotzen ditu.

30. artikulua. Ingurumena Zaintzeko Plana, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa aplikatuz

ALPk Ingurumena Zaintzeko Plan bat du lotuta bere garapenarekin, eta xedea da jarduketaren garapena kontrolatzea, identifikatutako ingurumen afektazioak txikiagotzea edo saihestea, eta ezarritako ingurumen integrazioarako neurriak gauzatzen direla bermatzea. F AGIRIAREN 1. puntuan (11. atala), BBIBALP garatzeaz batera gauzatuko den zaintza planaren edukia deskribatzen da.

V. TITULUA: BBIBALP-REN INDARRALDIA, AZTERKETA ETA ALDAKETA

31. artikulua. Indarraldia

BBIBALP hau hamabi urtetan egongo da indarrean.

32. artikulua. Azterketa

Aztertea da BBIBALPn barne hartutako zehaztapenak edo ezarpenak oro har aldatzea, bizikleta bideen edota ibilbide berdeen beste antolamendu irizpide bat hartu direlako.

Indarrean dagoen bitartean edozein direla egiten diren aldaketak, BBIBALP aztertu beharko dute, hala aholkatzen duten inguruabarrak gertatzen badira, eta kasu guztietan, jarduketa programen epea amaitu baino urtebete lehenago.

BBIBALP hau aztertzeke, alde zuzentzeko formulatzeko eta onartzeko erabilitako prozedura berari jarraituko zaio.

33. artikulua. Aldaketa

BBIBALP honen zehaztapen lotesleen aldaketak, aurreko artikuluan ez badira jasotzen, artikuluko honek araututako aldaketak izango dira, eta funtsezko aldaketa edo ez-funtsezko aldaketa gisa katalogatuko dira.

Funtsezko aldaketatzat hartzen da, oro har, Arabako Lurralde Historikoan, hasiera batean hautatutako eta onartutako plangintza ereduaren egiten den edozein aldaketa, betiere berri bat gisa jo badaiteke, ez bakarrik alderdi puntualetan eta osagarrietan.

Funtsezko aldaketak egiteko, onartzeko ezarritako prozedura berari jarraituko zaio.

Ez-funtsezko aldaketatzat hartzen da Arabako Lurralde Historikoan plangintza orokorreko ereduaren aldatzen ez badu ere, eskualde mailako Sarearen koherentzian eragiten badu.

Ez-funtsezko aldaketek irailaren 9ko 206/2003 Dekretu autonomikoak, Lurralde Antolamenduko Arauen, Lurralde Plan Partzialen eta Lurralde Plan Sektorialen ez-funtsezko aldaketak onartzeko prozedura arautzen duenak, ezarritako prozedurari jarraituko diote.

Hala eta guztiz ere, aurreko atalean deskribatutako Arabako Bizikleta Bideen Foru Sarearen ez-funtsezko aldaketak Arabako Foru Aldundiak onar ditzake, jendaurrean ikusgai jarri gabe, Batzar Nagusiei jakinarazita.

Bizikleta bideen kudeaketan eskumena duen administrazio organoari, edo hala badagokio, ibilbide berdeen kudeaketan eskumena duenari, egokituko zaio aldaketa jakin baten inguruko epaia ematea.

Ez da inola ere aldaketatzat hartuko:

- BBIBALPtik urruntzen diren etorkizuneko aldaketa egitea, BBIBALPren xedapenak, 23. artikuluekin bat, orientagarriak badira.

- Zabalgunekak, hobekuntzak, egokitzapenak eta aldaketak, Arabako bizikleta bideen foru sareko bideen ibilbidearen funtsezko aldaketarik ez badute ekartzen, betiere planifikatutako bideen eraikuntza bideragarria bada.

- Zabalgunekak, hobekuntzak, egokitzapenak eta aldaketak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeen sarearen koherentziaren funtsezko aldaketarik ez badute ekartzen, betiere planifikatutako ibilbide berdeen eraikuntza bideragarria bada.

- Zehaztapenak, edo proiektu teknikoaren zehaztasun handiagoarengatik egiten diren doiketak, eta eragindako lurzoruaren errealitateak berak ekartzen dituen doiketak, ibilbide berdeen edo bizikleta bideen arloan eskumena duen sailak adierazten duenak izanda jarraitu beharreko irizpidea.

- ALP honetan jasotzen den zerbitzuko sare planifikatua osatzen dutenak ez diren beste ibilbide berde batzuk idaztea edo zehaztea.

- Hurrengo artikuluan aipatzen diren jarduketan plangintzari eta gauzatzeari buruzko eguneratzeak.

34. artikulua. Eguneratzea

BBIBALPren egiturak jadanik sortuta dauden eta planifikatuta dauden ibilbide berdeak eta bizikleta bideak zehazten ditu, eta horiek garatzeko, C agirian (jarduketa programa) deskribatutako plangintza eta balorazio ekonomikoa egiten ditu.

BBIBALPren eguneratzea, katalogatutako ibilbide berdeen eta bizikleta bideen zerrendan eta dagozkien ibilbideetan, ALHAOn Ibilbide Berdea edo Bizikleta Bidea izendatzeko Erabakiak argitaratu eta dagozkion Katalogoetan sartu eta gero egingo da.

Ibilbideak Katalogoaren eraikuntza proiektuen edo fitxen arabera doitzea, eta katalogatu edo planifikatu gisa hartzen diren ibilbide eta bideen zerrendak definitzen diren araudi honen artikuluen eguneratzea ekarriko du. (7. artikulua eta 15. artikulua).

1. ERANSKINA: LANKIDETZA HITZARMENAREN EREDUA IBILBIDE BERDEEN KUDEAKETAN

Araudi honen 16. eta 26. artikuluek ezartzen dute, administrazio arteko harreman eta koordinazio esparrua, Ibilbide Berdearen izendapenaren eta katalogoan sartzearen barruan, haren kudeaketa eta kontserbazioa, eta izendapen horrek forua titularra ez den azpiegituretan izan dezakeen eragina, administrazioek lankidetzat hitzarmen bat sinatuko dutela.

Hitzarmen horiek errazago idazteko eta kudeatzeko, hitzarmen eredu bat proposatuko dugu orain. Xedatzailea besterik ez da izango, eta kasu jakinei eta esku hartzen duten administrazioen beharrei egokitu beharko zaizkie.

LANKIDETZA HITZARMENA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILAREN ETA (E) KO UDALAREN / KONTZEJUAREN ARTEAN, "....." IZENeko IBILBIDE BERDEA IZENDATZEKO ETA KUDEATZEKO

Gasteiz, (e) koaren(a)

BILDU DIRA

Alde batetik, Josean Galera Carrillo jauna, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua, Foru Sail horren egitura organikoa onesten duen otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren arabera dagozkion eskumenak baliatuz.

Bestetik,jn./and.,(e) ko Udaleko alkate /(e) ko Kontzejuko lehendakari gisa aritzen dena, Hitzarmen hau sinatzeko baimena duena, egun honetako bilera saioan:

Bi aldeek lankidetzat hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta hau:

ADIERAZI DUTE

I. Duela hogeitau urte baino gehiago Arabako Foru Aldundia Tokiko Erakundeekin lankidetzan ari da antzinako bideak berreskuratzen eta bide berriak egokitzen, Arabako lurraldeko natura ondarea, paisaia eta historia eta kultura ondarea ezagutzeko eta haien balioa nabarmentzeko. Horrela, landaren eta hiriaren arteko lotura ere bideratuko da.

Helburua da korridoreak sor daitezela sustatzea, jendea natura eta landa ingurunera errespetuz hurbil daitezela, mugikortasun iraunkorra susta dezaten eta ondare balioak dituzten landa inguruneak dinamizatu ditzaten, besteak beste, balio ekologikoak, paisajistikoak eta historiko dituztenak. Horrela, jarduera ekoturistikoak garatzen lagunduko dute, eta horri esker, Landa Garapen Iraunkorreko ekimen berriak txertatuko dira.

II. Arabako Ibilbide Berdeen Sareko azpiegiturek jabari eta erabilera publikoko ondasunak dira, eta ibilbide berdeak erabiltzean, titularra tokiko beste erakunde bat den azpiegituretan eragin dezake, aldeek beren artean akordioa egin ondoren. Hitzarmen hau sinatuz, jadanik sortuta dauden azpiegitura edo bideen atxikipena arau nahi da, "....." izeneko Ibilbide Berde gisa erabiltzeko. Ibilbide horren kontserbazio, zaintza eta sustapeneko kudeaketa araubidea ezarri da, urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoak, ezarritako baldintzen arabera.

III. Hitzarmen honen xede den ibilbide berdearen ibilbidea hau da:

(Ibilbidearen eta igarotzen den tokien eta herrien deskribapen sintetikoak).

IV. "....." izeneko ibilbide berdea(e) ko Udala / Kontzejua titularra den beste landa bide eta bide batzuekin gainjartzeak bide horien berezko erabileren aldaketa ekartzen ez badu ere, Lankidetzat Hitzarmen bat sinatzea gomendatzen du, administrazioen arteko harremanak arau daitezela. Horrela, tarte gainjarrietan, aplikatuko diren kudeaketa, kontserbazio eta zaintza parametroak ere ezarriko dira. Xede horretarako, kontuan hartu behar da, urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legeak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei

buruzkoak, 3. artikuluan, ezartzen duena. Hor, Arabako Ibilbide Berdeen Sareko tarteez landa bideekin, abere edo baso bideekin bat egiten badute, landa bideen, abere bideen edo baso bideen berezko arloko araudia aplikatuko da.

Adierazitako aurrekarietan oinarrituz, aldeek hitzarmen hau sinatzea hitzartu dute.

KLAUSULAK

LEHENENGOA. HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da izeneko Ibilbide Berdea, Arabako Ibilbide Berde izendatzeko eta Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartzeko prozedura, eta haren kudeaketa araubidea arautzea, kontserbatzeko eta zaintzeko irizpideak ezarriz, Arabako Foru Aldundiak zein(e) ko Udalak / Kontzejuak dituzten eskumenen esparruaren barruan.

BIGARRENA. IBILBIDE BERDEA IZENDATZEKO PROZEDURA BULTZATZEA.

1. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak.....Ibilbide Berdea Arabako Ibilbide Berde gisa izendatzea proposatzen du, eta hitzematzen du hala izendatzeko, parametro hauetan oinarrituko dela:

a) Izena:

b) Ibilbidearen sailkapena: Bide Berdea, Ibilbide Berdea edo Zidor Berdea (Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeen 1/2012 Foru Arauaren 2. artikulua arabera).

c) Ibilbidearen maila: Lehentasunezko intereseko ibilbidea, eskualdeko edo tokiko ibilbidea (1/2012 Foru Arauaren 2. artikulua arabera).

d) Ibilbidea eta atxikitako Eraikuntza Proiektuaren hitzarmenaren ezaugarri orokorrak.

2.(e) ko Udala / Kontzejua,Ibilbide Berderako ezartzen den izendapenaren ibilbidea igarotzen den lursailen erakunde titularra den heinean, ados agertzen da proposatutako izendapenarekin, titularra den ibilbidearen tarteei dagokienez.

HIRUGARRENA. ESKU HARTZEN DUTEN ALDEEN KONPROMISOAK.

1. Arabako Ingurumen eta Hirigintza Sailak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Ibilbide Berdea Arabako ibilbide berde izendatzea proposatuko du, izendatzeko eta Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartzeko dagozkion legezko izapideak bideratuz.

b) Proiektua idatziko du eta proposatutako ibilbide berdea egokitzeko eta seinaleztatzeko beharrezkoak diren obrak edo jarduketak egingo ditu. Era berean, segurtasuna bermatuko du ibilbidearen tarte guztietan, izango dituen erabilerei eta erabiltzaileei dagozkien segurtasun eta seinaleztapen estandarrak eta baldintzak betez.

c) Katalogoan barne hartzen den ibilbidearen mantentzea eta artatzea bere gain hartuko ditu, Ibilbide Berde gisa erabiltzeko, baita eginkizun teknikoa, zaintzekoa eta zehatzekoa, Hitzarmen honen baldintzen arabera, eta urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeak arautzen duenean, ezarritakoari jarraiki.

d) Ibilbide berdea eta igarotzen den natura eta landa esparrua, natura ondarea, paisaia eta historia eta kultura ondarea sustatzeko jarduketak egingo ditu. Bestalde, bere web-orrian ibilbideari eta bere inguruari buruzko informazioa eguneratuta mantenduko du.

2.(e) ko Udalak / Kontzejuak hitzematzen du landa bide, baso pista, hiri eta hiri arteko bideei buruzko araudiaren eta aplikatzekoa den gainerako arloko arautegiaren arabera dagozkion betebeharrak beteko dituela, Hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera. Horren arabera, ez du hartuko bestelako betebeharrakIbilbide Berdea Arabako ibilbide berde izendatzeagatik.

3. Esku hartzen duten aldeen arteko harremanetan administrazioen arteko lankidetzeta eta koordinazio printzipioak nagusiko dira,Ibilbide Berdearen babes, defentsa eta sustapen onena lortzeko, eta bere landa inguruaren dinamizazioa sustatzeko.

LAUGARRENA. KONTSERBATZEKO ETA MANTENTZEKO BETEBEHARRA IBILBIDEA LANDA BIDEekin EDO UDALA / KONTZEJUATITULARRA DEN BESTE BIDE BATZUEKIN BAT EGITEAN.

Artatzeko eta mantentzeko betebeharrak Ibilbide Berdea igarotzen den bide moten arabera ezartzen dira, baldintza hauek kontuan hartuz:

1. Nekazaritza edo baso bide batekin bat egiten duten Ibilbide Berdearen tarteetan, landa bideen eta baso bideen berariazko araudia aplikatuko da.

2. Finken eta nekazaritza ustategien zerbitzura dauden landa bideen lehentasuneko erabilera bermatu eta errespetatuko da, eta aplikatzekoa izango da bai landa bideetan, bai baso bideetan horiek arautzen dituen araudi sektorialean erabileren erregimenari buruz xedatutakoa. Edonola ere, aurretik bideak zituen ibilbideko bidegurutzetan, Arabako Foru Aldundian ibilbide berdeen inguruan eskumena duen sailak beharrezko eraikuntza-estandarrik hartu beharko ditu, horien zirkulazioan interferentziarik ez egoteko, ibilbide berdearen erabilera bereizgarri dagokienez lehentasuna dutela kontuan hartuta.

3. Ibilbidearen erabilera landa bideekin edo baso bideekin batzen den tarteetako seinaleztapena horien araudian bertan ezarritakoa izango da, eta Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak Ibilbide Berdeen Sarekoa dela adierazten duen bereizgarria jarri beharko du, oro har, eta, horren barruan, bereziki denIbilbide Berdearen barrukoa dela; ibilbide berdeko joan-etorria eta funtzionamendu egokia bermatzeko dagozkion seinaleak ezarri ahalko dira.

4. Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak bere gain hartzen ditu ibilbide berdeetan landa bideekin edo edozein motatako bideekin gainjartzen den tarteetan horietako sarbidea eta erabilera informazio egokiarekin eta baldintza egokietan egiten dela bermatzeko beharrezko segurtasun-neurriak hartzeko eta seinaleztatzeko eskakizunak. Nekazaritza erabilera lehentasuneko erabileratzen hartuko da landa bideetan, eta baso erabilera, baso bideetan.

5. Ibilbide Berdearen hiri barruko bideguneen mantentzea eta artatzea haien titularra den erakundeari dagozkio. Hiri barruko bidegunetzat hartzen dira hirigintza plangintzak ezartzen dituen hiri lurzorutik edo lurzoru urbanizagarritik igarotzen direnakIbilbide Berdearen hiri barruko bidegunen horietan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak seinaleen erantzukizuna bere gain hartuko du, erabilerak bateragarriak izan daitezen, segurtasun baldintzetan.

6. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak bere gain hartzen du Ibilbide Berdearen tarte edo bideguneen kontserbazioa eta mantentzea, zehazki, aurretik sortuta dauden landa bideetatik igarotzen direnena, bideena edo baso bideena, Landa Bideen Erregistroan izena emanda ez baitaude. Tarte horietan, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak haiek kontserbatzeak, mantentzeak eta seinaleztatzeak ekartzen duen ondare erantzukizuna bere gain hartuko du.

BOSGARRENA. LANDA BIDEAK ETA BASO BIDEAK GAINJARTZEN DIREN TARTEETAN UTZITAKO ERABILEREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA.

Ibilbide berdea eta nekazaritza edo baso bideekin bat egiten diren tarteetan, haien araudian ezarritako erabileren araubidea aplikatuko da. Horiek bateragarritzat eta lehentasuneko berariaz hartzen dira, urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoak, ezarritako erabilerei dagokienez.

SEIGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA.

Hitzarmen honen xedearen Jarraipen Batzordea eratuko da, eta kargu hauek dituztenek osatuko dute:

- Ibilbide Berdeen arloan eskumena duen Foru Zuzendaritza, edo haren ordezkari izendatzen duen pertsona.
- Udaleko alkatea / Kontzejuko lehendakaria, edo haren ordezkari izendatzen duten pertsona.
- Foru Zerbitzuko funtzionarioa, Ibilbide Berdeen arloan eskumena duena.
- Udaleko funtzionarioa / Kontzejuko bokala.

Bilerak dagokionean dei daitezke, eta ibilbide berdeen arloan eskumena duen Foru Zuzendaritzak eta Udaleko / Kontzejuko lehendakariak egin dezakete deialdia. Sailaren foru bulegoetan egingo dira.

ZAZPIGARRENA. INDARRALDIA.

Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du. Dena dela, aurreko atalean ezarritako epea amaitu aurretik, hitzarmenaren sinatzaileek adostasunez erabaki ahalko dute gehienez lau urteko epe gehigarrian luzatzea edo iraungitzea.

ZORTZIGARRENA. IZAERA JURIDIKOA.

Hitzarmen honek Administrazio Zuzenbidearen berez izaera du, beraz, sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioak ikuskatuko ditu.

Eta ados daudela agerrarazteko, alderdiek honako hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goian adierazitako leku-egunetan.

FORU DIPUTATUA

ALKATEA

KONTZEJUKO LEHENDAKARIA

2. ERANSKINA: LAG: PAISAIAREN ARLOKO GIDALERROAK

BBIBALPren Araudiaren 2. eranskin gisa hartzen dira LAGen 21. artikuluko gidalerroetako batzuk, Paisaiaren arlokoak, ibilbideak garatzean kontuan hartzen badira, ALPk jarraitutako helburuak lortzen lagunduko duten zehaztapen asko barne hartzen dituztelako.

21. artikulua. Paisaiaren arloko gidalerroak

1. Lurraldean egiteko jarduketak prestatzean, haren morfologia mantentzen dela egiaztatzea, eta zehazki, topografia, landaretza eta arboladi klimazikoak mantenduz. Neurri hauek kontuan hartuko dira:

a) Elementu nagusien gainean edo mendi gailurretan, itsaslabarren ertzetan eta lursailaren amaierako eremuetan eraikitzea saihestea.

b) Lursailen berezko malda ez aldatzea saihestea, erliebearen hegalkak eta irtenguneak kontserbatuz, hormak desagertzea, zuhaitzen eta bide tradizionalen lerrokadurak, esaterako, saihestuz.

c) Eraikinak, lurzatiak, bide sarea eta azpiegiturak luraren topografiari egokitzea, zedarriak babestea, dauden goragune topografikoak eta paisaia elementu bereziak mantentzea saiatuz. Helburua da elementu berriek aurretik daudenekin ez lehiatzea.

d) Landaretza eta baso naturalak mantentzea, lurraldearen kalitatea islatzen duen zuhaitzak egon daitezela sustatuz, eta baso naturaletako berezko espezieak landa daitezela bultzatuz.

e) Landa eremuen berezko nekazaritza paisaiak kontserbatzea, hala nola, landazabalak, ortuen laboreak eta zuhaitziak, paisaiaren barietateari laguntzen diotelako, betiere testuren nahasteari eta lurralde ingurune hauek berezi bihurtzen dituzten erabileren mosaikoak ematen duen geometria bereziari erreparatuz.

f) Dagoen landaretza desagertuz gero, lursailen egitura eta baso masa kontserbatzen laguntzen duten neurri konpentsatzaileak ezartzea, eta paisaia naturala, landare estaldura kontserbatzea eta bertako espezieak sustatzeko, edo hala badagokio, historikoki ustiatu joan direnak, ekoizpen baliabideei eta biziraupen baliabide tradizionaleri lotuta daudenak.

(...)

3. Ibai paisaiak berri eta kontserbatu daitezen sustatzea, eraikin itsusgarriak kenduz, erriberako landaretza babestuz, oinezkoen eta txirrindularien bideen sare bat sustatuz, eta komunikazio elementuak (zubiak, ibai portuak edo ontziralekuak), ekoizpen elementuak (errotak, burdinolak, erriberako ontziolak), bizitzeko edo aisialdiko elementuak berreskuratuz.

4. Kultura ondare historikoa sustatzea, oroimen lekuak guztiontzako egoeren bidez lotzen laguntzen duten proposamen irekien bidez.

5. Kultura bideen balioa nabarmentzea eta ibilbide, bide eta begiratokiaren sarea sortzea, herritarrak paisaiara hurbil daitezen sustatzeko, kostaldeko ibilbideak barne, neurri hauek kontuan hartuz:

a) Ibilbideetan ondare intereseko puntuak eta ondasunak barne hartzea, baita instalazio eta azpiegitura historikoak ere. Gaikako ibilbideak ere ezar daitezke. Bistak izateko aukera handia duten tokietan begiratokiak sustatzea.

(...)

c) Ahal dela, ibilbide eta begiratoki horietatik bisten eragozpena ekiditea.

(...)

7. Biztanleguneak inguratzen dituen ingurune fisikoan sartzea, ertzak, espazio libreak eta sarbideak zehaztuz, zelaitik hirirako aldaketa egokia antolatzeke, besteak beste, neurri hauek kontuan hartuz:

(...)

c) Kanpoko ertzen eta inguruaren ezaugarriak definitzea, guneen irudi tradizionala gordetzeko helburuarekin. Horrez gain, jadanik sortuta dauden elementuak integratzea, kontserbatzeko direnak, eta landagune gisa muga justifikatzen dutenak bereziki. Horrez gain, modu egokian definitzea udalez gaindiko komunikazio azpiegiturei lotzeko puntuak. Bereziki kontuan hartzea nekazaritza pabiloien paisaia integrazioa, biztanleguneei eta haiek kokatuta dauden lurralde egiturari dagokienez.

d) Hiriguneetako sarbideak diseinatzea, inguru natural edo landa inguruko espazio naturalen eta hiri paisaien arteko trantsizioa errazten dutenak, eta horrez gain, hiriguneeen arteko lotura bideen sareak eratzea edo berreskuratzea.

(...)

11. Bermatzea egingo diren azpiegitura, obra eta jarduera guztien oinarritzko baldintzetako bat betetzen dela, eragina izan badezakete paisaian, eta horretarako beharrezko ingurumen ebaluaziorako tresnak erabiltzea edo integrazio paisajistikoko azterketak egitea.

(...)”